

ZUMAIAKO UDALA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

2007KO MARTXOAREN HOGEITMARREAN UDAL PLENOAK EGINDAKO EZOHICO BATZARRALDIKO AKTA.

Zumaiako hirian, bi mila eta zazpiko martxoaren hogeitamarrean, eguerdiko ordubietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da, ezohiko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez ezarritako eguneko aztergaiari jarraituz. Garaiz eta behar bezala deituta, korporazioko kide hauek bertaratu dira:

LEHENDAKARITZA.-

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA andrea.

ZINEGOTZIAK.-

Asier ESNAL ALBIZU jauna.
Manuel ZUBIA ARTABE jauna.
Lide AMILIBIA BERGARETXE andrea.
Mikel OLAIZOLA ELOSUA jauna.
Andoni ETXANIZ OSA jauna.
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA jauna.
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA jauna.
Abel YEREGUI SASIAIN jauna.
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ jauna.
Paloma HEREDERO NEGREDO Anderea.

IDAZKARIA.-

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

1.- MOZIOAK:

1.1 IÑAKI DE JUANA, (ETXERAT)

Alkate-Presidente andreak batzarra osatu ondoren, IZUSTARRIko bozeramaileak mozioa irakurri du:

Gure senide Iñaki de Juana donostiarra hil ala biziko egoeran aurkitzen da Espainiar Estatuak ezarritako kondena oso-osorik bete ostean ez dutelako askatu. Espainiar Estatuak ezarritako kondena beldurgarria 2000. urtean bete

arren (orduan bete baitzituen kondenaren 3/4enak) ez zuten askatu. Kondena oso-osorik 2004. urtean bete zuen baina orduan ere ez zuten askatu. Batetik, ebazpen judizialen bitartez onartuak zituen erredentzioak egun batetik bestera kendu egin zizkiotelako eta, bestetik, Espainiako agintariek publikoki aitortu zuten bezala, edozein bitarteko erabiliz, kasu honetan, bi iritzi artikulurengatik, gure Iñaki ia beste 13 urtera kondenatu dutelako.

Bahiketa horrek bultzatu du gure senide donostiarra gose greba mugagabea egitera eta, egun, Madrileko 12 de Octubre ospitalean dute bere nahiaren aurka elikatuz, bere bizitza arrisku larrian delarik.

Egoera ezin larriago honek, gure senide baten bizitza arrisku larrian baita, ondoko lerroetan laburbiltzen den mozioa urgentziaz tratatua eta Udal honek onartua izatea eskatzera garamatza:

- Udaletxe honek bere kezka azaltzen du Iñaki de Juanaren bizitzak duen arrisku larriagatik eta elkartasuna adierazten die Iñaki de Juanari eta bere senide eta ingurukoei.
- Ondorioz, baldintzarik gabeko bere berehalako askatasuna exijitzen dio Espainiako Gobernuari.
- Iñaki de Juanaren egoera bahiketa politikotzat definitzen du Udaletxe honek, espainiar Estatuko Gobernuko ordezkariak publikoki azaldu gisara, kondena bete ostean espainiar Estatuak ez askatu nahi izateagatik mantentzen dutelako preso, hau da, Iñakiren eta bere ingurunearen sufrimenduari etekin politikoak lortu asmoz.
- Iñakiren askatasuna exijituz, gutuna bidaliko dio Udaletxe honek Espainiako Gobernuburu Jose Luis Rodriguez Zapaterori. Halaber, Iñaki de Juanaren askatasuna exijituz konpromisoak hartzeko prestutasuna erakusten du Udal honek.
- Mozio honen berri emanez, bandoa kaleratuko du. Halaber, onartutako mozioaren berri emango die komunikabideei.

Alkateak adierazi du ezinezkoa dela gai-zerrendan sartzea, eta, beraz, EAJren testua irakurriko duela mozioari erantzuteko.

“Ezker abertzaleak” euskal presoek eta, bereziki, Iñaki de Juanaren egoerari buruz aurkeztutako mozioari dagokionez, EAJ-PNV udal-taldeak honako hau adierazi nahi dio plenoari:

1.- Giza printzipioekin eta pertsona guztien eskubideekin eta askatasunarekin dugun konpromisoa oinarri hartuta, askatasunik gabe daudenen eskubideak errespetatzea eskatzen dugu.

2.- *Preso dauden pertsonen eskubideak errespetatzeak garrantzia handiago du edozein politika-testuinguruk baino. Zuzenbidezkotzat aitortzen den estatu batek ezin du Legea erabili pertsona baten eskubideak urratzeko.*

3.- *Beraz, legea betez, gaixotasun larriak eta sendaezinak dituzten pertsonak nahiz zigorraren bi herenak bete dituztenak libre uzteko eskatzen dugu.*

4.- *Bereziki, Iñaki de Juanak presoak bizi duen egoerari eta, oro har, gainerako kasuei dagokionez, legeak aitortutako eskubideak errespetatzea eskatzen dugu, eta askatasuna ukatzeko legea neurri gabe erabiltzea gaitzesten dugu.*

5.- *Gure iritziz, konponbidea pertsona guztien eskubideak errespetatzetik etorriko da; hori dela-eta, prozesu honetan inplikaturako alderdi guztiei eskatzen diegu eskubide horiekiko konpromiso sendoa har dezaten.*

PSOEk ordezkarri gisa, Emiliano Cabañasek adierazi du ETXERATEk aurkeztutako mozioa lekuz kanpo dagoela, bai eta gainerakoak ere. Gai-zerrendatik kentzea eskatu du. Egindako proposamena onartzen ez bada, aurka bozkatuko dutela adierazi du, beren iritziz ez baitator bat errealitatearekin.

EAK azaldu du mozioa lekuz kanpo dagoela, eta ez direla balorazio politikoak egiten hasiko.

IZUSTARRIk bere nahigabea adierazi du mozioa otsailaren 8ko plenoaren gai-zerrendan sartu ez izanaz; izan ere, orduan gaia bizi-bizia zegoen. Egun, arazoa behar bezala konponduta dago, zorionez; baina, egoera beste modu batean amaitu izan balitz, oso tristea izango zen.

Inori babesa azaldu behar bazaio, pertsona hori De Juana dela adierazi du. Une honetan ez du zentzu handirik, baina argi gelditu dadila.

PNVren erantzuna positiboa dela uste dugu, eta, horregatik, bazen aukera akordio batera iristeko.

Ondoren, bozketa egin da:

Eskubidezko zinegotziak: 13

Bertaratuak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA eta 2 PSOE).

Aldeko botoak: 2 IZUSTARRI

Aurkako botoak: 5 EAJ, 2 EA ETA 2 PSOE

ERABAKI DUTE

ETXERATEk IÑAKI DE JUANARI buruz aurkeztutako mozioa ez onartzea.

1.2 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN OROITZAPENA, MARTXOAK -8- (PSOE)

Testua irakurtzen hasi aurretik, PSOEko zinegotziak adierazi du mozioa anakronikoa dela martxoaren 8ari baitagokio; baina, plenoaren gai-zerrendan sartuta dagoenez, egokia dela horri buruz eztabaidatu eta bozkatzea.

SOZIALISTEN UDAL-TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN –MARTXOAK 8– OROITZAPENA DELA-ETA

Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruz Erregelamenduan aurreikusitakoari jarraiki eta haren babesean, ZUMAIako udaleko sozialisten udal-taldeak honako MOZIO hau aztertu nahi du, plenoan:

Urtero, martxoaren 8a data sinboliko bihurtzen da; hau da, emakumeen bizi-kalitatea hobetzeko borrokaren oroigarri.

Arlo publikoan nahiz pribatuan, emakumeen eta gizonen artean une oro aurki ditzakegun desberdintasunak gogorarazten dizkigu.

Eta horrek emakumeengan herritar gisa dituzten eskubideak hedatzeko lan egiten jarraitzera bultzatzen gaitu; horretarako, berdintasun-politika sendoak eta zehatzak bultzatu behar dira, eta, batez ere, pertsonen arazo errealetan eragiten dutenak.

Besteak beste, honako hauek aipatu behar dira: Genero-indarkeriaren aurkako Lege Integrala –ebaluazio-mekanismo egonkorak dituena–; Mendekotasunaren Legea –bereziki, emakumeei eragiten die, familia-zaintzaile nagusiei–; dibortzio-prozesua aldatzekoa –bizkorrago eginez eta trauma gutxiago eraginez–; edo sexu-esplotaziorako egiten den emakume-trafikoaren kontrako Plan Nazionala. Azken ekimen hori Gobernu Zentralak aurkeztu du, eta, bertan, neurri zehatzak aztertuko dira, hainbat eremuri dagozkienak: justizia, gizartea, hezkuntza, polizia eta immigrazioa. Horrela, mafien jarraipena egitea eta trafikaturako emakumeak babestu eta gizartean nahiz lan-munduan integratzea bultzatuko da, prostituitutako emakumeen eskubideak defendatzeko.

Erabat ziur gaude emakumeen bizi-baldintzak hobetzeak eta horiek gizartean parte-hartze aktiboa izatea lortzeak udalerrietako demokrazia-kalitatea hobetzea eta elkarbizitza-harremanak aberastea adierazten duela; gainera, herrialdeko ekonomia-garapena indartzeko apustu garbia da.

Honako egoera hauek ezagunak zaizkigu: emakumezkoek gizonezkoek baino %28,8 gutxiago kobratzen dute, oraindik; kasuen %83an, emakumezkoek dute beren mendeko pertsonak zaintzeko ardura; genero-indarkeriaren ondorio larriak jasaten dituzte; unibertsitatetik lizentziatuta irteten diren %60 emakumezkoak izan arren, horiek dituzte aldi baterako kontratu gehien eta horiek uzten dute lehenengo lana, ama izaten direnean.

Errealitate hori ez zaigu batere gustatzen, eta, gainera, gure eginbeharra da hori aldaraztea; horregatik, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen dugu eta, gainera, gure konpromisoa bete dugu Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako Berdintasunaren Legea onartuz. Lege horren bidez, emakumeei leku propio bat eman nahi zaie, amatasunari eta enpleguari buruzko erabakiak berdintasun- eta askatasun-baldintza berdinetan har ditzaten, bai eta politikari, pertsona zibilei, lanari, ekonomiari, gizarteari eta kulturari buruzko erabakiak hartzeko egituretan parte-hartze osoa izan dezaten ere

Berdintasun-politika hori, gainera, emakume guztiengana zabaldu nahi dugu; hau da, egunero sortzen diren arazoak konpondu nahi dira, emakume-multzo ugari gainditu behar izaten dituztenak: lehen lana bilatzen ari diren emakume gazteek, helduek, landa- eta hiri-eremukoeak, autonomo nahiz enpresariak, informazio-gizartean sartu nahi duten emakumeek... Horiei guztiei tresna baliagarriak eman nahi zaizkie, gizarteke edozein eremutan hasi nahi dituzten ekimeneetan lidergo handiagoa lor dezaten.

Erabaki-hartzeetan emakumeen parte-hartzea eta aitortza bermatuz soilik bizkortu ahal izango da martxoaren 8an batzen gaituen helburuaren lorpena: herritar guztien arteko berdintasuna, benetakoa eta errealia, bakoitzaren sexua dena delakoa izanda ere.

Hori dela-eta, ZUMAIAKo Udaleko Sozialisten udal-taldeak honako MOZIO hau aurkeztu du, plenoan azter dadin eta honako ERABAKI hauek onar daitezen:

- 1.- Tokiko estatistika ofizial guztietan, datuak sexuaren arabera banatuta adieraztea, jendearen zerbitzura jarritako baliabide publikoen onuradunen benetako egoera ezagutzeko, eta, ondorioz, neurri zuzentzaileak ezartzea, zerbitzu horiek jasoko dituztenengan eragin zehatzagoa izan dezaten.
- 2.- Tokiko aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzea, gastu-politikak helburu den biztanleriaren premietara gehiago hurbiltzeko; izan ere, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak hobeto ikusteak aukera ematen du baliabide-banaketa hobeto egiteko.
- 3.- Ahalegin berezia egitea tokiko gobernu-organismoetan egindako dokumentu guztietatik hizkuntza sexista ezabatzeko.
- 4.- Generoaren araberako erraila digitalaren aurka egitea; hau da, prestakuntza egokiko ikastaroak egingo dira, teknologia berriak ematen dituzten abantailak baldintza berdinetan baliatuz.

5.-Genero-indarkeriaren aurkako kontzientziazio- eta sentsibilizazio-kanpaina berriak sustatzea. Kanpaina horietan, gizarteko eta hezkuntzako sektore guztiak hartuko dira kontuan, eta, bereziki, komunikabideak; izan ere, horiek dira iritzi-sortzaile nagusiak, eta, gainera, aliatu eraginkorrak dira emakumeen aurkako indarkeria-jarrerak zilegiztatzen dituzten kultura-estereotipoak ezbaian jartzeko.

6.- Udalaren mende dauden organismo guztietan, bi sexuetako pertsonak izatea, modu orekatuan, eta, horrez gain, leku espezifikoak sustatzea, jardunaldi, topaketa eta bestelako hainbat ekimenen bidez, emakumeen lidergoa bultzatzeko.

7.- Dagokion eskumen-mailan, Gobernu Zentralarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzea, Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako berdintasunaren aldeko Legean aurreikusitako neurri guztiak garatzeko eta aplikatzeko, horrela emakumeen bizi-baldintzak hobetu eta bi sexuen arteko berdintasun erreala lortzeko bidean aurrera egingo da.

Paloma Heredero Negrodo
Zinegotzi sozialista¹

O.E. bozeramailea

Alkateak adierazi du EAJk alde bozkatuko duela, alderdia bat baitator mozioan aurkeztutako printzipio orokorrekin, honako xehetasun honetan izan ezik:

Mozioaren sarreran Gobernu Zentralak Diputatuen Kongresuan bultzatutako lege-ekimenei egin zaie erreferentzia; baina, guk, euskaldunak garen heinean, eskuduntza propioa dugula uste dugu.

Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea onartu zuen 2005ean. Euskal Autonomia Erkidegoan Berdintasun Legea dugu orain bi urtetik.

Horrez gain, “berdin sarean” sartzeko konpromisoa dugu.

IZUSTARRIk adierazi du mozioaren alde bozkatuko duela, baina honako aipamen hauek egin dituzte:

.- Emakume euskaldunak daudela aldarrikatu dute, testua gaztelaniaz soilik aurkeztu baita.

.- Mozioak zazpi puntu ditu, baina sei izan zitzakeen. Martxoaren 8an guztiok gogoratzen gara emakumeen aldeko eguna dela, baina, urteko gainerako egunetan, ahaztu egiten gara.

Aurten, aurrekontuak negoziatu dira, eta PSOEek ez zuen ezer proposatu emakumearen alde; ebazpen-proposameneko 2. paragrafoan, aldiz, tokiko aurrekontuetan genero-ikuspegia kontuan hartzeari egiten zaio erreferentzia.

EAK adierazi du aldeko botoa emango duela, berdintasun-gaiei dagokienez Euskal Autonomia Erkidegoari bereziki dagozkion eskumenei kalterik egin gabe. Halaber, bere egin du urtemugek eguna gogorarazten diguten hausnarketa, eta gaineratu du ez litzatekeela gaizki egongo aurrekontu-proiektua eztabaidatzean eta onartzean berdintasun-politiken eragina kontuan hartzea.

PSOEK erantzun du aurrekontu-proiektua eztabaidatzean eta onartzean ez dutela ezer eskatzen trukean. Jadarre sartzera dela-eta, alderdiak aurrekontuak onartu egin behar direla uste badu, guk nahikoa dela irizten diogu. Horrek ez du esan nahi, ordea, Eusko Jaurlaritzako Berdintasunerako Legea kontuan hartzen ez denik. Baina, beti, ezer trukean eskatu gabe.

IZUSTARRIK uste du kontua ez dela trukean zerbait eskatzea, aldarrikatzea baizik; ez gaur bakarrik, baizik eta urteko 365 egunetan.

Zinegotzi SOZIALISTAK plenoa zoriondu du mozioa aho batez onartuko delako, eta gaineratu du generoen arteko berdintasuna urteko egun guztietan aldarrikatuko dela.

Testuan Euskal Autonomia Erkidegoko genero-berdintasunaren legedi propioari buruzko aipamena sartzeko esan du, eta, aldi berean, tokiko gobernuko organo guztien dokumentuetatik hizkuntza sexista ezabatzeko eskatu du, ez baitio historiari mesederik egiten.

Alkateak, EAJren ordezkari gisa, erantzun dio euskaraz ez dagoela hizkuntza sexistarik.

Zinegotzi SOZIALISTAK mozioa euskarara itzultzeko eskatu du.

Bozketa egin ondoren, batzarrean dauden ordezkari guztiek aho batez onartu dute.

ERABAKI DUTE

MARTXOAK 8KO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNAREN OROITZAPENARI buruz PSOEK aurkeztutako mozioa onartzea.

1.3 EUSKAL ERAKUNDEEN ALDE (EAJ)

Alkateak mozioa irakurri du; honela dio:

Justiziaren bideak politikan hartu duten gehiegizko indarrak botere judizialek politika indarrez hartzea eragin du; horren adibide da Lehendakariaren kriminalizazioa, euskal herritarrek emandako kargua ardura osoz betetzearen ondorio, hain zuzen. Hori dela-

eta, egoera horretaz harrituta, Zumaiako Udalak bat egiten du Euskal Erakundearen aldeko ekimenarekin, eta, aldi berean, honako hau adierazi nahi du:

1. Justizia politizatu izana salatzen dugu; hain zuzen, bide horretatik erakunde politikoei eta herritarren borondatearen ordezkari zuzenei dagozkien funtzioak mugatu nahi zaizkie. Halaber, gure babes osoa adierazi nahi diogu Lehendakariari, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak bere aurka irekitako auzi penalaren kontra, horrela bere oinarritzko eskubideak eta gure herriko politika-ekimena zuzentzeko duen ardura instituzionala ezabatu nahi izan baitute.
2. Politika justiziaren mehatxurik gabe gauzatu ahal izatea eskatzen dugu, elkarrizketa eta konponbide zuzenak nahiz demokratikoak bultzatzeko ekintza instituzionalak eta politikoak ezin baitira inoiz legez kanpokoak izan, eta are gutxiago delituak.
3. Demokraziaren oinarriari, politika askatasunez gauzatzeko eskubideari eta gure erakundearen balioari justiziak egindako erasoaren larritasuna kontuan hartuta, Lehendakariaren aurka irekitako **auzi penala, inolako justifikaziorik ez duena, berehala** artxibatzeko eskatzen dugu.

Akordio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusira eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidenteari bidaliko zaio.

IZUSTARRIko bozeramaileak Ibarretxeri elkartasuna adieraziz ekin du bere azalpena.

Mozioari dagokionez, partziala dela adierazi du, eta ez duela arazoa errotik aztertzen. Bertan ez dira ez Rufi Etxebarria, ez Otegi eta ez Patxi Lopez aipatzen. Beraz, mozio alderdikoia eta partziala dela adierazi du.

Arazoaren muina Alderdien Legea da, eta ondorioa Ibarretxek epailearen aurrera agertu behar izana. Lotsagarria. Baina hori aspalditik ari da gertatzen.

IZUSTARRIko mozioaren aurka bozkatuko du, ez baitu arazoaren muina aipatzen, Alderdien Legea, alegia.

PSOEk adierazi du politika justiziaren bidetik eramatearen aurka daudela. Baina ez da Alderdien Legearen ondorio. Mozioak, bestalde, Ibarretxeri soilik egiten dio erreferentzia, eta guk alderdiko bi kide ditugu egoera berean; hau da, ez dira guztiak modu berean babesten.

Beraz, aurrekoa kontuan hartuz, gu abstenitu egingo gara.

EAK mozioaren alde bozkatuko duela adierazi du, Lehendakaria Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde gorenena baita.

Botere-banaketaren printzipioa zuzenbidezko estatuaren oinarria da, eta hori arriskuan dago botere politikoa justizian sartzea eta botere judiziala politikan sartzea dela-eta.

Lehendakaria botere exekutiboaren gorengo organoa da.

Patxi Lopez, Rufi Etxebarria... politikariak dira, eta babestu egin behar dira; baina Lehendakaria gorengo organoa da, eta, beraz, gure babesaren adierazten diogu.

EAJren iritziz, egoera hau ez da soilik Alderdien Legearen ondorio. Sakonean, beste arrazoi ugari daude. Esaterako, politika nazional konkretu batzuk daude, eta horiek muturreraino eramanez gero, estatuan kezka sortzen da; horrez gain, Euskadi naziotzat hartzeak alarma eragiten du, Ibarretxe Planak ere argi gorriak pizten ditu... Alderdien Legea, hain zuzen, norabide horretan doan edozein ekimen gelditzeko sortu zen.

Euskadiko arazoaren konponbidea Lehendakariak hasitako bide baketsuri eta demokratikoari jarraituz lortuko da, ezinbestean.

IZUSTARRIk adierazi du Lehendakariaren aurkako jarduera judiziala bidegabekeria dela, eta, balorazio horretan, 18/98 sumarioan auzipetuta daudenen egoera aipatu du. Gaineratu dutenez, ekintza horietan Alderdien Legearen erroak daude.

Ondoren, bozketa egin da:

Eskubidezko zinegotziak: 13

Bertaratuak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA eta 2 PSOE)

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ eta 2 EA).

Aurkako botoak: 2 IZUSTARRI

Abstentzioa: 2 PSOE.

ERABAKI DUTE

EAJk EUSKAL ERAKUNDEEN ALDE aurkeztutako mozioa onartzea.

2.- URREZKO DOMINA: LUCIA LACARRA.-

Alkateak jakinarazi du San Telmo jaiak direla-eta egun batzuk Zumaian pasako dituela.

Egoera hori baliatuz, udalak Lucia Lacarrari Zumaiaiko urrezko domina saria ematea proposatu du.

Gaia Bozerramaileen Batzordean onartu ondoren, proposamena aho batez onartu dute alderdi politiko guztiek.

Honako testu hau irakurri da:

Lucia Lacarra

Zumaiaiko Udalak, udalerriko interes orokorrerako diren merezimendu bereziak saritzeko beharrari erantzunez, Lucia Lacarrari **Zumaiaiko urrezko domina** ematea proposatu du.

Egun, lehen bezala, zenbait portaera eta jarrera publikoki adierazteak eta aitortzeak interes handia sortzen du, ezbairik gabe. Izan ere, jarrera horiek, duten

garrantzia dela-eta, herritarren artean hainbeste behar dugun elkartasuna sustatzeko estimulu dira.

Lucia Lacarra dantzari zumaiarra egungo balet klasikoko dantzari ospetsuenetako bat dela esaten da, eta garrantzi handiko ibilbide artistikoa du. Dantzarekiko interesa gazte-gaztetatik erakutsi zuen, eta 9 urterekin baletako klaseetara joaten hasi zen, Zumaian. 13 urterekin, Lucia Lacarra Donostian zegoen, Mentxu Medelen Thalia akademian, eta, urtebete beranduago, Madrilgo hiriburura joan zen, Victor Ullateren eskolan sartzeko. Eskola ospetsu horretan, bere belaunaldiko beste hainbat izarrek ikasi zuten –besteak beste, Tamara Rojo, Igor Yebra eta Maria Giménes–, eta eskola horretan ikusi zuten, halaber, Lucia Lacarra dantzari bikaina izango zela, egun ospetsu bihurtu dena, hain zuzen. Roland Petiten Balet Nazionalean ibili zen, eta, han, sortzaile famatuaren errepertorio guztia interpretatu zuen. Horrez gain, San Frantziskoko Baletan eta Opera Municheko Baletan jardun du; azken horretan, zehazki, dantzari nagusia da, 2002an bertan sartu zenetik.

Jaso dituen sari nagusiak:

Nijinsky, 2002: munduko dantzari onena.

Dantzako Benois saria, 2003

Sabino Arana saria, 2004

Dantzako Sari Nagusia, 2005

Beraz, bere ahaleginez iritsi den zumaiar hau dagoen lekura, borrokatuz; inork ez dio ezer oparitu, eta, gaztea izan arren, munduko sari nagusiak jaso ditu.

Zumaiako izena mundu guztian zabaldu du. Elkarrizketa guztietan nongoa den esaten du, eta, horrez gain, bere ezagunen aurrean dantzatzea beretzat zein garrantzitsua den ere adierazten du.

Zumaiako herriak asko miresten du, eta berak, beti, umiltasunez eta hurbiltasunez erantzuten du.

Munduko, espainiar estatuko eta Euskadiko gorengo mailek, dagoeneko, saritu egin dute. Beraz, bere jaioterriari soilik falta zaio egoeraren mailan egotea; hori dela-eta, zumaiar bati eman dakioken saririk handiena eman nahi diogu, oraindik inori eman ez zaiona: ZUMAIAKO URREZKO DOMINA.

San Telmo jaietan (seguru asko, igande arratsaldean –apirilaren 15ean–) emango zaio, udaletxeko Biltzar Aretoan.

Bozketa egin ondoren, batzarrean dauden ordezkari guztiek aho batez onartu dute.

ERABAKI DUTE

Zumaiako urrezko domina saria Lucia Lacarrari ematea.

3.- HIRIGINTZA:

3.1 ZUMAIAKO SAHIES BIDEA, N-634 ERREPIDEAREKIN LOTZEKO ERROTONDA EXEKUTATZEKO ESPEDIENTEAREN ZUZENEKO-OKUPAZIO ESPEDIENTEA HASERAKO IZAERAZ ONARTZEA.-

Beste erremediorik ezean, Alkateak adierazi du lurrak zuzenean okupatzea proposatu dela, ondorioak izango dituzten lur-jabeekin negoziazio-bide guztiak amaitu eta gero.

Hirigintza Batzordean Industrias Gair enpresarekin izandako bileren berri eman zen, baina osoko bilkuran ez da guztia zehaztuko, alferrikako errepikapenik ez egiteko. Hala ere, egindako ahaleginak eta borrokak argitu nahi izan dira, besteak beste: Aldundiak errepidea atzeratzeko eta pabiloia partzialki eraisteko. Hau da, jarduera mantendu nahi izan da, eta, horretarako, beharrezko bideak egokitu eta, udalak eskatuta, sustapenak ematen dituen ziurtagiri teknikoak prestatu dira, horrez agin, sustapenak erantzukizun-aseguruko polizak aurkeztu ditu, lanak direla-eta sortutako edozein gertaera estaltzeko.

Egindako ahaleginari jabeak emandako erantzuna, berriz, ezezko biribila izan da. Estrategia bere horretan jarraitzea da, sustapenak eskaintza hobea egitea lortu arte, baina horrek ez du bermerik eta, gainera, saihebidetako errotonda egitea oztopatzen du.

Jarrera horren aurrean, lurra zuzenean okupatzea beste biderik ez dago.

Plenoan, beraz, honako proposamen hau egin da, onartua izan dadin: espedientearen hasierako onarpena egitea eta proposamen hori jendaurrean jartzea, hilabeteko epean.

Hitz egiteko txandan, PSOEK adierazi du enpresaren egoera ulertu egingo lukeela lanpostuak defendatzeko izan balitz, baina eurentzat onartezina da Zumaiako herriaren interesa enpresa pribatu baten mende egotea. Udalak ez du atzera egin behar, eta zumaiarren interes kolektiboak defendatu behar ditu. Denbora izan dute akordioetara iristeko, eta ezin da onartu jakinarazpenik ez dutela jaso alegatzea, espedientearen egiaz jaso dutela adierazten bada. Aurrera egin behar da, errotondaren alde eta escalextricaren kontra.

IZUSTARRIko bozeramaileak adierazi du interes kontrajarriak daudela: enpresarenak eta herritarrenak. Guk zumaiar guztion interes orokorren alde egiten dugu eta, horregatik, saihebidetako errotonda egitearen alde gaude, baina ez da enpresaren arazoa baztertu behar, eta konponbidea aurkitu behar zaio.

EAJkoek erantzun dute enpresaren arazoa ekonomikoki etekin hobea lortzea baino ez dela. Beren iritziz, ez dago ezezkoa emateko arrazoirik, lekuan bertan mantentzea eta jardueran aldaketak ez egitea lortu baita.

Eak zer epe dagoen galdetu du, eta gaineratu du ea espediente-hasiera hilabete atzeratzeak eta, ondorioz, enpresari sustapenarekin negoziatzeko aukera handiagoa emateak udalerriko interesak kaltetuko dituen.

EAJk erantzun dio Aldundiak apirilaren 15erako saihebidetako lurrak eskuragarri izatea eskatu duela, eta, beraz, atzeratuz gero, ez dugula nahiko denbora izango, egin beharreko izapideak kontuan hartuta; izan ere, oraindik ez dakigu ziur errotonda edo escalextrica egingo den.

Gaia eztabaidatu ondoren, Hirigintza Batzordean onartutako irizpena irakurtzen da zera dioena:

AURREKARIAK

1.- Eremuko Hirigintza Hitzarmena.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2007ko martxoaren 13koa, Zumaiaiko arau subsidiarioen 1. zk.ko Aldaketa Puntuala onartzekoa.

4.3 atalean, *Lagapena eta ekitatezko banaketa* izenekoan, aldaketa agiriak dio lagatzeko gai izango direla 14. Sistema Orokorreko saihebidetako (634 errepide nazionalekoa) sarbidea hobetzeko lanetarako behar diren lursailak, besteak beste 12.2 Exekuzio Unitateari atxikitakoak.

1.8 atalean, *Irizpideak eta Helburuak* izenekoan, ezartzen da herrira sartzeko saihebidetako izango duen bidea hobetzeko behar diren lursailak eskuratzea.

3.- Proiektu Tekniko Juridikoa, honako atalak dituena: Memoria, Okupatu beharreko Ondasunen eta Eskubideen zerrenda eta Dokumentazio grafikoa.

Zerrenda horrek zuzenean eragindako gisa barne hartzen du Ucin pabiloiko elementu komunetan jabeetako bakoitzari dagokion zati proportzionala.

OINARRI JURIDIKOAK

1.- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, 186, 187 eta 188 artikulua.

188. artikulua, 1, 2 eta 3 puntuak:

1. "1.- Jarduketa integratu baten barruan edo hari atxikita dauden sistema orokorren edo lokalen sareko zuzkidura publikoetarako lursailei dagokienez, alde aurretik eskuratu ahal izango dira, zuzeneko okupazioaren bitartez. Kasu horretan, okupatu beharreko lursailei dagokien hirigintza-eraikigarritasuna aitortuko zaio horien titularrari, egikaritze-unitateak gerora izango duen garapenaren kargura, alde aurretik titularrarekin hitzarmenik egin beharrik gabe.

2.- Zuzeneko okupazioak, alde aurretik, eragindako titularrari dagokion hirigintza-eraikigarritasuna ezartzea eskatuko du.

3.- Zuzeneko okupazioaren prozedurak arau hauek errespetatu beharko ditu:

a) Nahitaezkoa izango da eragindako lursail eta jabeen zerrenda argitaratzea. Zerrendarekin batera, banan-banan adierazi beharko dira lursail horien hirigintza-eraikigarritasunak, baita jabe bakoitzari hilabete lehenago jakinarazi ere hala aurreikusitako okupazioa, nola okupazio horren inguruko gainerako gorabehera garrantzitsuak.

b) Okupazioa egiten den unean, haren akta egin beharko da. Bertan honakoak jasoko dira: baimen-ematearen lekua eta eguna, administrazio-jardulea, okupaturiko lursailen titularren identifikazioa, lursailon erregistro-egoera, okupatutako azalera, lursailei dagokien hirigintza-eraikigarritasuna.

.....

e) Zuzeneko okupazioaren aktaren administrazio-ziurtagiriak, betiere, birpartzelatzearen beraren ondorioak izango ditu.

f) Egindako aktaren ziurtagiria eta, harekin batera, dagokion plano bidaliko ditu administrazio jarduleak jabetza-erregistroa, behar diren inskripzioak egin ahal izateko.

..... " "

Bozketa eginik, eskubidezko hamahiru zinegotzietatik, batzarrera bertaturiko hamaika zinegotziren aho batasunean ERABAKI DA:

1.- Zumaiako saihebidia N-634 errepidearekin lotzeko errotonda exekutatzeko behar diren lursailak zuzenean okupatzeko espedientearen hasierako onespena ematea eta, bide batez, eragindako lursail eta jabeen zerrenda, lursail horien hirigintza-eraikigarritasunak adieraziz:

PARTZELA	JABEAK	ERANTSITAKO AZALERA				ERREFERENTZIA OROKORRA	ERAIKIGARRITASUN-ESKUBIDEA	
		A/PER(m ²) KATASTROA	%	A/ESKRITURAK (m ²)	% ESKUHARTZEA		%	A/PER (30.595 m ²)
*A.1 PABILOIA UCIN	JABE-KOMUNITATEA	4.181,78						
	PROMOCIONES TORREAGA SL	2.032,76	40,60	1.051 1.555,5 1.110,84	9,84 24,90 13,87	48,61	11,82	3.616,32
	JOSE MARI ALKORTA	70,67	1,68	123,25	1,69		0,41	125,43
	ANTONIO UNAMUNO	287,29	6,87a)				1,67	510,93 a)
	VICENTE ROYO	133,82	3,20	246,05	3,20		0,77	235,58
	VIVEROS SAN ANTON	207,83	4,96 b)				1,20	367,14 b)
	INDUSTRIAS GAIR	157,65	3,76	123,25 231,2	1,14 2,63	3,77	0,91	278,41
	TELEFONICA	530,67	12,69	352 352	12,69		3,08	942,36
	NEUMATICOS BAYONA	161,00	3,85 c)				0,93	284,53
	ELECTRICIDAD AIZPURU	434,49	10,39	648,39	10,39		2,52	770,99
	JUANTXO EGAÑA	165,60	3,96	247	3,96		0,96	293,712

	FRANCISCO J. MENDIA			432,87	4,97 b)		b)	
	MANUEL PEREZ Y OTROS			511,63	6,87a)		a)	
	JESUS MARI EGAÑA			245,16	3,85 c)		c)	
*A-2 TORREAGA	PROMOCIONES TORREAGA SL	11.513				66,98	20.492,53	
GAINERAKO AK	ZUMAIAKO UDALA	2.969,14				0%	0,00	
GUZTIRA EU 12.2		20.157		6.910,58			30.595	

Zatikatze hau gutxi gorabeherakoa da, eta Birpartzelazio Proiektua izango da behin betiko zatikatzea eta eraikigarritasuna ezarriko dituen.

* Okupazio espedientea A.1 Ucin pabiloia eta A.2 Torreaga lur-zatiei buruzkoa izango da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako departamenduak behin betiko egindako exekuzio-proiektuak eragiten duen neurrian.

2.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintziako tirada handienetakoa duen egunkarietako batean argitaratzea eragindako lursailen eta jabeen zerrenda, bakoitzari dagozkion hirigintza-eraikigarritasunak adierazita, eta hilabeteko epean publikoki erakustea.

Epealdi horretan ikusi nahi duen edonoren eskura egongo da espedientea, eta dagozkion alegazioak egin ahal izango dira.

Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behineko izan den erabakia behin betikotzat hartuko da.

3.- Jabeen banan-banan jakinaraztea aurreikusitako okupazioa, gutxienez hilabete lehenago.

3.2.-ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 3. ZENBAKIDUN ALDAKETA PUNTUALA, LOKALEN GUTXIENENKO ALTUERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETARI DAGOKIONA, HASIERAKO IZAERAZ ONARTZEA.

Alkateak arauaren egungo egoeraren eta egin nahi den aldaketaren arteko konparaketa egin du.

57.1. artikulua honako hau arautzen du: "Gutxieneko altuera. 2,80 metrokoa izango da jendaurreko gunetan, eta 2,25 metro komunetan, biltegietan edota ganbaretan".

Aldaketaren helburua egungo merkataritza-lokalei bideragarritasuna ematea da; beraz, berriak ez diren eraikinetan, gutxieneko altuera librea 2,50 metrokoa izatea proposatu da, sailkatutako jardueri dagokienez, eta, jarduerak libreak direnean, berriz,

udal-irizpideen arabera erabakitzea proposatu da (hau da, 54.4. artikuluari jarraiki, kasu bakoitza banan-bana aztertuz).

57.1. artikuluan aldaketa egin ondoren, honela geratuko litzake:

"Gutxieneko altuera librea.

Eraiki berri diren eraikinetan dauden lokalei dagokienez: Gutxieneko altuera. 2,80 metrokoa izango da jendaurreko gunetan, eta 2,25 metrokoa komunetan, biltegietan edota ganbaretan.

Lehendik zeuden eraikinetako lokalei dagokienez:

Lokalean egiten den jarduera Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiak arautzen badu: gutxieneko altuera 2,50 metrokoa izango da jendaurreko gunetan, eta 2,25 metrokoa komunetan, biltegietan edo ganbaretan.

Jarduera librea denean, udalak kasu bakoitzarekin zer egin erabaki beharko du, udalerraren intereserako egokiena iruditzen zaion irizpideari jarraiki."

Zumaiako Arau Subsidiarioen 3. zenbakidun aldaketa horri dagokionez, Hirigintza Batzordeak aldeko irizpena eman du.

Bozketa eginik, udalbatzako eskubidezko hamahiru zinegotzietatik, batzarrera bertaraturiko hamaika zinegotziren aho batasunean ERABAKI DA:

1.-Udal-teknikarien txostenean xedatutakoari jarraiki, Zumaiako Arau Subsidiarioen 3. zenbakidun Aldaketa Puntuala HASIERAKO IZAERAZ onartzea, **LOKALEN GUTXIENEKO ALTUERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETARI DAGOKIONA**, hain zuzen.

2.-Hilabetez jendurrean jartzea; horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien saltzen den egunkarietako batean iragarriko da. Tarte horretan, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku egongo da, eta alegazioak egiteko aukera izango da.

Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behineko izan den erabakia behin betikotzat hartuko da.

**3.3.-LANKIDETZA-HITZARMENA: UROLA KOSTAKO
MANKOMUNITATEAREN ETA AIA, GETARIA, ORIO, ZARAUTZ ETA
ZUMAIKO UDALEN ARTEAN, URTETAKO ZABORTEGIAREN**

ETORKIZUNeko MANTENUA ETA ITXIERA ESTALTZEKO FONDOAREN NAHIKOTASUNA BERMATZEKO. ALKATEARI SINADURARAKO GAITASUNA EMAN.

Alkateak hitzarmena sinatzearen helburuaren berri eman du. Urtetako zabortegia 2009. urtean itxiko da, eta, beraz, hitzarmen horren bitartez, behar besteko funtsa sortu nahi da, itxiera, zigilatzea eta etorkizuneko mantenua bermatuko dituen.

Ondorioz, kudeaketa-eredu berria dela-eta, ekarpen-sistema aldatu egingo da; hori dela-eta, hemendik aurrera, Hiri Hondakin Solidoen tona bakoitzeko tarifa honako hau izango da: 62 €/tn.

EAJk hitzarmenaren alde bozkatuko du.

IZUSTARRIk adierazi du hitzarmenaren aurkako botoa emango dutela; izan ere, hitzarmenaren ondorioz erraustegiak eraikiko dira, eta ez daude horrekin ados.

PSOEK hitzarmenaren alde bozkatuko du. Proposamen hori San Markoseko zabortegia ixtearen ondorio dela uste dute, eta, gainera, Europako Batasunak behartu duela hori egitera.

EAK ere aldeko botoa emango du, erkidegoak ingurumenari buruz emandako Zuzentaraua betetzea adierazten baitu.

Zabortegia ixteari eta erkidegoko zuzentarauak betetzeari buruz eztabaidatu da.

Ondoren, bozketa egin da:

Eskubidezko zinegotziak: 13

Bertaratuak: 11 (5 EAJ, 2 IZUSTARRI, 2 EA eta 2 PSOE).

Aldeko botoak: 9 (5 EAJ, 2 EA eta 2 PSOE).

Aurkako botoak: 2 IZUSTARRI

Abstentzioa: 0.

ERABAKI DUTE

1.- Urola Kostako Mankomunitatearen eta Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalen arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea, Urtetako zabortegiaren etorkizuneko mantenua eta itxiera estaltzeko fondoaren nahikotasuna bermatzeko.

2.- Alkateari ahalmena ematea, akordio hau bete ahal izan dadin.

3.4.-UROLA KOSTAKO MANKOMUNITATEA: ESTATUTU-ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA BERRESTEA, HELBIDEARI DAGOKIONEZ.

Alkateak jakinarazi du Urola Kostako Mankomunitatearen Batzar orokorrean (2006ko abenduaren 20koa) estatutueta 3. artikulua aldatzeko erabakia zela, sozietate-helbidea Ebro etxetik "Urdaneta bidea 6" zuzenbidera aldatzeko erabakia, hain zuzen.

Erabakia jendaurrean jarri eta inolako alegaziorik aurkeztu ez denez, mankomunitatea osatzen duten udalerriek hartutako erabakia berretsi eta behin betiko egin behar da.

Bozketaren eginik, udalbatza osatzen duten eskubidezko hamahiru zinegotzietatik batzarrera bertaraturiko hamaika zinegotziren aho batasunean ERABAKI DA:

2006ko abenduaren 20an Urola Kostako Mankomunitateak Sozietate Estatutueta 3. artikulua aldatzeko erabakia berrestea.

4.- GIZARTE-ZERBITZUAK:

4.1 UDALEN ETA GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEAN TELELAGUNTZA ZERBITZUAREN KUDEAKETA-LANEN ESLEIPENA FORMALIZATZEKO HITZARMENA. ALKATEARI GAITASUNA EMAN SINATZEKO.

Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen lehendakariak azaldu du egun ematen den zerbitzu bat hobetu nahi dela, telealarmarena, hain zuzen. Telelaguntza izeneko zerbitzuaren araudi berriari esker, orain arte emandakoa hobetuko da.

Zerbitzu hori adineko pertsonentzat da, autonomoentzat nahiz besteen mendean bizi direnentzat. Gailu bat da, eta larrialdi-egoera batean daudenean piztu dezakete. Alarma hori, hain zuzen, SOS Deiak zerbitzuan entzuten dute, eta, horrela, onuraduna artatu egiten dute.

Orain arte, zerbitzu hori udalak soilik ematen zuen; baina, hemendik aurrera, EUDELen bidez antolatuko da. Horretarako, EUDELek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak akordio marko bat sinatu dute, Telelaguntzaren Zerbitzua emateko baldintzak zehazteko.

Zerbitzuaren tarifa honako hau izango da: 76,27 € aparatua bakoitzeko eta 81,26 € ekipoa mantentzeko.

Erabiltzailearen ekarpena kenduta, erakundeek parte hartuko dute zerbitzuaren gainerako kostua finantzatzen; zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalak erdibana ordainduko dute.

PSOEK adierazi du zerbitzua arautzeko prozesua Batzar Nagusietan aurkeztutako txostenaren ondorio dela.

Bozketaren eginik, udalbatza osatzen duten eskubidezko hamahiru zinegotzietatik batzarrera bertaraturiko hamaika zinegotziren aho batasunean ERABAKI DA:

1.- Telelaguntza zerbitzuari dagozkion kudeaketa-lanen esleipena formalizatzeko Zumaiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako hitzarmena onartzea.

2.- Alkateari sinatzeko gaitasuna ematea.

4.2 TELELAGUNTZA-ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN UDAL-ARAUDIAREN HASIERAKO ONESPENA, BIDEZKOA BADA.

Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen lehendakariak adierazi du hitzarmena onartu ondoren Telelaguntza Zerbitzua Arautzen duen Araudia onartu behar dela, sei hilabeteko epean.

Epe barruan egonik, eta Araudia Batzordean aztertu ondoren, horri hasierako onespena ematea proposatu du.

Bozketa eginik, udalbatza osatzen duten eskubidezko hamahiru zinegotzietatik batzarrera bertaraturiko hamaika zinegotziren aho batasunean ERABAKI DA:

1.- Telelaguntza-zerbitzua arautzen duen udal-araudia hasierako izaeraz onartzea.

2.-Hilabetez jendaurrean jartzea; horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien saltzen den egunkarietako batean iragarriko da. Tarte horretan, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku egongo da, eta alegazioak egiteko aukera izango da.

Erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behineko izan den erabakia behin betikotzat hartuko da.

Beste gairik izan gabe, arratsaldeko hirurak direnean, Alkate andreak batzarraldia amaitutzat eman du, eta nik, idazkari naizen aldetik, fede ematen dut.

ALKATEA.....IDAZKARIA